

EKINTZA PLANA

kurrikara



AURKIBIDEA

1. Aurkezpena.....	3
1.1 2024ko Lurrikara programaren ekintza planaren metodologia	3
2. 2024ko Lurrikara programaren ekintza planaren printzipioak	4
3. 2024ko Lurrikara programaren ekintza planaren helburuak	5
3.1 Helburu orokorrak.....	5
3.2 Helburu espezifikoak	5
4. 2024ko Lurrikara programaren ekintza plana, laburpen taula.....	6
5. 2024ko Lurrikara programaren ekintza planaren proposamenak.....	7
5.1 1. neurria. Udalerriko gazteen espazioak ezagutzea eta suspertzea	8
5.2 2. neurria. Lurraldean gazteria promozionatzeko agente profesionalen sarea sortzea	10
5.3 3. neurria. Gazteen ahalduntze eskola sortzea.....	12
5.4 4. neurria. Gazteak emantzipatzeko Arabako estrategia diseinatzea.....	14
5.5 5. neurria. Landa gunean bizi diren gazteentzat espazio digitala sortzea	16
6. Ebaluazioa	17
7. Ekintza planaren faseak.....	18

1. Aurkezpena

Lurrikara programa Arabako landa gunean bizi diren 14 eta 30 urte bitarteko gazteen emantzipaziorako eta dinamizaziorako programa da. Programa honen bitartez, gazteek bizitzaren alderdi ezberdinetan dituzten beharrak eta interesak identifikatu nahi dira, ondoren, behar eta interes horiei erantzuten dieten ekintzak sortzeko. Hala, ekintza horien bitartez, gazteei bizi proiektua garatzen lagunduko zaie.

1.1 2024ko Lurrikara programaren egoeraren txostena

2024ko otsailetik ekainera gazteen egoera-txostena egin da Arabako landa gunean, Arabako lurraldea osatzen duten zazpi eskualdeetatik (edo udalerrri taldeetatik) sei eta Trebiñuko Konderria kontuan hartuta:

- Añanako Kuadrilla
- Aiarako Kuadrilla
- Gorbeialdeko Kuadrilla
- Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla
- Arabako Lautadako Kuadrilla
- Arabako Mendialdeko Kuadrilla
- Trebiñuko Konderria

Egindako analisian, nagusiki eskualde bakoitzaren alderdi hauek landu dira:

- Existitzen diren gazteei zuzendutako programak, zerbitzuak eta ekipamenduak.
- Gazteen parte hartzea.
- Hezkuntza.
- Emantzipazioa (prozesu hori lanaren, etxebizitzaren, prestakuntzaren eta norberaren bizitzaren orientazioaren eta proiektuaren bidez jarri da testuinguruan).
- Gazteriaren arloko bestelako beharrak edo gabeziak.

Zona ezberdinetako sare digitalak analizatuz, zona bakoitzeko administrazio teknikiarekin elkarrizketak eginez, profesional horiekin telefono bidez hitz eginez, zona ezberdinetan bizi diren gazteei elkarrizketak eginez eta Arabako landa gunean bizi diren gazteei inkestak eginez ateratako datu kuantitatiboekin (informazio hori diagnosiaren agirian zehazten eta garatzen da) ondorio batzuk atera dira. Ondorio horiek erakusten dute Arabako landa zonan bizi diren gazteen errealitatean gabezia eta/edo arazo batzuk daudela (aurrerago aipatu eta garatuko dira).

1.2 Lurrikara programaren ekintza planaren metodologia

Ekintza plan hau garatzeko eta helburuak lortzeko, analizatu dugun errealitatearen beharrei erantzuteko neurriak proposatuko dira.


Ekintza plan honen bitartez gauzatu nahi diren proposamenak beti egongo dira gazteek aktiboki parte hartzeari eta eskualdeen gizarte dinamizazioari bideratuta.

2. Ekintza planaren printzipioak

Lurrikara programaren helburua Arabako landa guneko gazteen bizi kalitatea hobetzea eta beren bizitzetan oso osorik parte hartzeko eta emantzipatzeko izan ditzaketen oztopoak murriztea da.

Horretarako, plana printzipio hauetan oinarrituko da:

- Berdintasuna
- Aniztasuna
- Gizarte dinamizazioa, parte hartze aktiboa eta lurraldeetako gazteen gizarte sareen arteko loturak ezartzea ahalbidetzen dituena.
- Gardentasuna
- Agente parte hartzaileen arteko kohesioa.



3. Lurrikara programaren ekintza planaren helburuak

3.1 Helburu orokorrak

Lurrikara programaren bitartez helburu orokor hauek lortu nahi dira:

- Arabako gazteen errealitatea ezagutzea, besteak beste, beren interesak eta beharrak zeintzuk diren jakitea.
- Jasotako behar eta interes horietan oinarrituz, hezkuntzarako eta lanerako orientazio pertsonalizatua eskaintzea.
- Jada existitzen diren gazteei zuzendutako ekimenei, programei eta zerbitzuei buruz informatzea.
- Norberaren garapenerako edo komunitate garapenerako gazteen proiektuak bideratzea eta horietan laguntzea.
- Gazteen parte-hartzea sustatzea.

3.2 Helburu espezifikoak

Ekintza plan honen bitartez helburu zehatzago batzuei erantzun nahi zaie, eta, horretarako, erreferentziatzat hartuko dira diagnosian hautemandako zailtasunak.

Hauek izango dira helburu espezifikoak:

- Landa gunean bizi diren gazteei enplegarritasuna errazten duten tresnak eta baliabideak hurbiltzea eta ezagutaraztea (enplegu atariak, laneratze enpresak, adin tarte horri zuzendutako programak, orientazio zerbitzuak, etab.).
- Landa guneetan dauden zerbitzuak hedatzea eta indartzea, oinarrizko zerbitzuen (garraioa, aisialdia, osasuna...) arteko lankidetzaren sare bat sortzeko. Sare horren helburua oinarrizko beharrei eta eskasiari erantzutea izango da.
- Gazteei emantzipazio prozesuari (higiezinaren merkatua, alokairu motak, etxebizitza bat eskuratzeko prozesuak, existitzen diren laguntza ekonomikoak, baldintzak...) buruzko informazioa eta baliabideak hurbiltzea (online eta/edo aurrez aurreko prestakuntza, idatzizko agiriak, hedapen digitala...) eta modu horretan laguntzea.
- Gazteek beren interesetatik eta beharretatik abiatuta parte hartzeko ahalegina egitea, eta existitzen den eskaintzari egokitu beharrik ez izatea.
- Ekintzaitzaren eta lehenengo sektorearen garrantzia indartzea, Arabako landa gunean belaunaldi erreleboa egon dadin.

4. 2024ko Lurrikara programaren ekintza plana. laburpen taula

Arabako landa guneko sei eskualde eta Trebiñuko Konderrria: <ul style="list-style-type: none"> ● Añanako Kuadrilla ● Aiarako Kuadrilla ● Gorbeialdeko Kuadrilla ● Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla ● Arabako Lautadako Kuadrilla ● Arabako Mendialdeko Kuadrilla ● Trebiñuko Konderrria 	Sei jarduketa ardatz: <ul style="list-style-type: none"> ● Enplegua ● Belaunaldi erreleboa ● Zerbitzuak ● Etxebizitza ● Gazteen arloko profesionalak ● Parte hartzea
---	--

1. ENPLEGUA	2. BELAUNALDI ERRELEBOA	3. ZERBITZUAK
Ezagonkortasuna, behin-behinekotasuna eta prekarietatea.	Gabeziak lehenengo sektorean	Gabeziak edo informaziorik ez izatea, nagusiki, garraioaren eta aisialdiaren inguruan.
4. ETXEBIZITZA	5. GAZTERIAREN ARLOKO PROFESIONALAK	6. PARTE HARTZEA
Baliabide ekonomikorik ez egotea. Etxebizitzak eskuratzeko zailtasuna / Lurzorua	Gazteekin zuzenean lan egiten duten profesionalik ez egotea.	Gazteek gutxi parte hartzea, askotariko inguruabarrengatik.

<u>Bost helburu nagusi</u> finkatu dira Arabako landa guneko gazteen errealitatea ezagutarazteko eta egungo arazoak ikusarazteko.	<u>Sei helburu espezifiko</u> finkatu dira detektatutako arazoei erantzuteko.
---	---

Bost ekintza sortu dira helburuak lortzeko:

1. Udalerrietan gazteen (14-30 urte) espazioak ezagutzea eta suspertzea.
2. Lurraldean gazteria (18-30 urte) promozionatzeko agente profesionalen sarea sortzea.
3. Gazteen (14-23 urte) ahalduntze eskola sortzea.
4. Gazteak (24-30 urte) emantzipatzeko Arabako estrategia diseinatzea.
5. Landa zonan bizi diren gazteentzat (14-30 urte) espazio digitala sortzea.

5. Ekintza planaren proposamenak.

Arabako gazteen egoeraren diagnosis egin eta gero zenbait ondorio atera dira, eta betiere gazteen ikuspegitik, ondoren azalduko diren gabezia eta/edo zailtasun batzuk ikusarazten dituzte.

Enplegua: langabezia adierazleak eta aktiboki lana bilatzen ari diren gazteenak ez dira handiak, baina analisia egin eta gero ondorioztatu da behin-behinekotasuna, ezegonkortasuna eta lan prekarietatea nagusi direla gazteak lanean ari diren kasu gehienetan.

Belaunaldi erreleboa: aurreikusten da oso zaila izango dela. Izan ere, iraganean landa zonetan hasi zituzten bizitza proiektu asko lehenengo sektoreko jardueretan oinarritu ziren eta bertan gauzatzen dira. Hala, bizi proiektu horiekin jarraitu ahal izateko aukera horrek gazteek gaur egun azpimarratzen duten zailtasun bat du, hau da, bizi proiektua jaioterrian hasi ahal izatea.

Aurreko paragrafoarekin lotuta eta **etxebizitzari** dagokionez, gazteek azpimarratu dute landa gunean etxeak falta direla eta salerosketarako edo alokairurako prezioak altuak direla. Horrek eta aurretik aipatu dugun laneko ezegonkortasun orokorrak asko zailtzen dute gazteak emantzipatu ahal izatea.

Gazteek ikusarazi duten beste zailtasunetako bat **Arabako landa gunean zerbitzu gutxi daudela** (gehienbat garraioa, enplegua eta prestakuntza azpimarratu dituzte) da. Gazteek errealitatea modu horretan ikusten dutenez, bizi proiektuak baliabide gehiago dituzten herri handiagoetan edo hurbileko hirietan hasten saiatzen dira.

Gazteek azpimarratu duten zerbitzu falta hori, beste batzuen artean, gazteek beren errealitatean antzematen duten beste zailtasun batekin lotuta egon daiteke, hain zuzen ere, **udaletxeetan ez egotea gazteen arloan lan egiten duen langilerik**. Gaur egun, Arabako zazpi eskualdeetatik bakarrik bitan dago gazteria teknikaria. Zehazki, Laudion, Aiarako Kuadrillan eta Alegria-Dulantzin, Arabako Lautadako Kuadrillan. Diagnostikoaren bitartez ondorioztatu da eskusiboki gazteekin lan egiten duten profesionalik ez egoteak gazteei zuzendutako ekimenak sortzea eta/edo garatzea galarazten duela.

Analisia egin ondoren detektatutako zailtasun nagusietatik azkena **gazteek** landa guneko egunerokotasunean gutxi parte hartzen dutela da. Gazteek beren jaioterrietan enpleguarekin, etxebizitzarekin eta prestakuntzarekin lotuta zailtasunak hautematen dituztenez, ez dute landa errealitatean parte hartzen eta bizi proiektuak hurbileko hirietan garatzen dituzte (adibidez, Gasteizen, Logroñon edo Miranda de Ebron).

Ondoren, aipatutako zailtasun horiei eta ekintza proposamenak gidatuko dituzten erreferentziei erreparatuz, neurri batzuk garatuko dira gabezia horiei aurre egiteko; kasu bakoitzean, udalerrietako gazteen askotariko egoerak kontuan hartuko dira, bideragarritasuna bermatze aldera.

5.1 1. neurria. Udalerrietan gazteen espazioak ezagutzea eta suspertzea.

Diagnosia gauzatu den lurralde guztietan, gazteek esan dute sozializatzeko espazio fisikoak falta direla, etxebizitzak eta/edo lokalak zaharberitu behar direla eta udalerrietako errealitatean gutxi parte hartzen dutela (zehazki, gazteen kolektiboak) eta, horrenbestez, arazoak sortzen direla belaunaldi erreleboa gertatu ahal izateko.

Neurri horrek helburu hauek bete nahi ditu:

- Herritarren (eta, horrenbestez, gazteen) parte hartzea sustatzea eta udalerriko espazio fisikoen egoera hobetzea.
- Gazteak ahalduntzea beraiek erabili ahal izango lituzketen espazioei dagokienez.
- Belaunaldien arteko harremanak sustatzea, neurria biztanleria osoari bideratuta egongo bailitzake.
- Udalerrietako komunitate sentimendua eta bertakoa sentitzearena indartzea.

Aurretik aipatu dugun moduan, ekimen hau biztanleria osoari bideratuta egongo da eta une oro borondatezkoa izango da, modu horretan, parte hartzea errazteko, askotariko lanak ahalbidetzeko eta komunitate sentimendua sustatzeko.

Neurri hori lortzea errazteko, 500 biztanle baino gehiagoko udalerrietan aplikatuko da. Udalerriak analizatu eta gero, hauek izango dira (diagnosi prozesuan egindako Arabako lurralde historikoaren banaketa kontuan hartu da):

- **Añanako Kuadrilla:** Gaubea, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Iruña Oka eta Lantaron.
- **Aiarako Kuadrilla:** Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio eta Okondo.
- **Gorbeialdeko Kuadrilla:** Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zuia eta Zigoitia.
- **Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla:** Eltziego, Bastida, Guardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca eta Oion.
- **Arabako Lautadako Kuadrilla:** Dulantzi, Agurain, Asparrena, Barrundia, Burgelu, Iruraiz-Gauna eta Donemiliaga.
- **Arabako Mendialdeko Kuadrilla:** Arraia-Maeztu, Bernedo eta Kanpezu.
- **Trebiñuko Konderria**

Lurrikara programaren diagnosian jasotako informazioa erreferentziatzen hartuta, Añanako Kuadrillak eta Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak ez ezik, gainerako lurraldeek gazteei zuzendutako nolabaiteko espazioak dituzte.

- **Aiarako Kuadrilla:** Laudioko Gaztelekua, Amurrioko Gaztetxea eta Laudioko Gaztetxea.
- **Gorbeialdeko Kuadrilla:** Aramaioko Gaztetxokoa eta Gaztetxea, Murgiako (Zuia) Gaztelekua eta Gaztetxea eta Legutioko Gaztegunea eta GKS Gaztetxea.

- **Arabako Lautadako Kuadrilla:** Aguraingo Gaztetxea eta Gaztelekua, Dulantziko Gaztelekua eta Burgeluko Gaztelekua.
- **Arabako Mendialdeko Kuadrilla:** Kanpezuko Gaztelekua.
- **Trebiñuko Konderria:** Gizarte Etxea.

Ekintza horren xedea izango da ekipamendu, zerbitzu eta programen katalogo oso bat aitortzea, egitea, eta, ondoren, erreformatzeko, birgaitzeko, berregokitzeko edo are sortzeko proposamena egitea (batez ere, gaur egun gazteentzat espaziorik ez duten lurraldeetan) edo gazteek erabiltzeko eta gozatzeko espazioak sortzea bultzatzea.

Hori lortzeko, lehenik eta behin, aurretik aipatutako udalerriekin harremanetan jarriko gara, proposamena planteatzeko eta bideragarritasuna eta metodologia baloratzeko. Lehenengo kontaktu hori irail hasieran egingo da eta ekintza bideragarritzat jotzen bada, herritarrei ideia aurkeztuko zaie eta jarduerak antolatzen hasiko gara. Une oro koordinatuta egongo dira udalak eta ekintza proposatzen duen erakundea. Ekintza aurkeztu eta hedatu eta gero, urrian jarriko da martxan.

Neurria ezartzen den bitartean, etengabeko koordinazioan egongo dira gazteekin lan egiten duten udalerrri bakoitzeko agenteak, horrela, ekintza zuzen garatzen dela bermatzeko.

5.2 2. neurria. Lurraldean gazteria promozionatzeko agente profesionalen sarea sortzea.

Diagnosian egin ziren inkestetan gazteek esan zuten langileak falta direla gazteen kolektiboarekin lan egiteko eta horrek eragin zuzena du kolektiboari zuzendutako zerbitzu gabezia, eta diagnosiak hori ikusgai jarri du.

Neurri horrek helburu hauek bete nahi ditu:

- Gazteen beharrei eta kezkei erantzutea.
- Profesionalek askotariko gaien inguruan dituzten ikuspegiak eskaintzea eta orientazioa ematea.
- Udaletxeetan langile indibidualik ez egotearen gabeziari erantzuten saiatzea, taldean eta diziplina artean lan eginez.

Gazteriaren teknikaria bakarrik Laudion (Aiarako Kuadrilla) eta Dulantzín (Arabako Lautadako Kuadrilla) egon arren, lurralde bakoitzean badaude udalerrietan egunero gazteekin lan egiten duten langileak (irakasleak, euskara, kultura, kirol eta parte hartze teknikariak, kaleko hezitzaileak eta/edo gizarte ongizateko, hezkuntzako, gazteriako, turismoko, kulturako eta kiroleko zinegotzigoak).

Ekintza hori lortzeari dagokionez, lehenik eta behin, eraginpeko lurralde guztiei zuzendutako aurkezpen orokorra egingo da.

Diagnosi prozesuan jasotako informazioa kontuan hartuta, hauek dira gazteekin lurralde bakoitzean lan egiten duten langileak:

1. **Añanako Kuadrilla:** Udalerrietako kultura teknikariak, Landa Garapeneko Agentziaren zonako arduraduna eta Iruña Okako hezitzaileak. Izan ere, udalerrri bakarra da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa edo goi mailako bestelako ikasketak egin ahal izateko.

2. **Aiarako Kuadrilla:** Audioko Gazteria teknikaria, udalerrietako kultura eta/edo parte hartze teknikariak eta Audioko eta Amurrioko hezitzaileak (programan lantzen diren adin tarteetako gazteekin lan egiten baitute).

3. **Gorbeialdeko Kuadrilla:** Kulturako eta/edo kiroleko teknikariak, KOKUKeko ordezkaria (erakunde horrek gazteekin lan egiten du inguru horretan) eta Durana Ikastolako hezitzaileak (gazteek Lehen Hezkuntzako ikasketak bukatzen dituztenean, horixe da ikasten jarraitzeko aukera nagusia).

4. **Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla:** kultura teknikariak, Arabako Nekazaritza eta Abeltzaintza Batasunaren (UAGA) ordezkaria, Samaniego Bigarren Hezkuntzako Institutuko orientatzailea, "El Collado" aisialdi elkartearen ordezkaria eta "Gazte Asanbladaren" ordezkaria.

5. **Arabako Lautadako Kuadrilla:** Dulantziko gazteria teknikaria, kultura, kirol eta/edo prebentzio teknikaria, Aguraingo eta Asparrenako kaleko hezitzaileak, Dulantziko talde feministaren ordezkaria eta Aguraingo hezitzaileak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasi daiteke bertan).

6. **Arabako Mendialdeko Kuadrilla:** kultura eta kirol teknikariak, Izkiko Landa Garapen Agentziaren arduraduna eta Kanpezu udalerriko hezitzaileak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasi daiteke bertan).

7. **Trebiñuko Konderria:** gizarte ongizateko, hezkuntzako, kulturako, kiroleko, gazteriako eta turismoko zinegotzigoak eta hezitzaileak.

Sei kuadrillak eta Trebiñuko Konderria ordezkatuak daudela bermatzeko, ahalegina egingo da ekintza honetan gutxienez eskualde bakoitzeko agente batek parte har dezan.

Diziplina arteko talde horien lanerako metodologia izango da baliabideak, prozesuak eta emaitzak partekatzea, modu horretan, guztien artean gazteriaren promozioa bermatzeko. Horretarako, zerbitzuak eta/edo espazioak homogeneizatuko dira eta, horrela, gazteen beharrei eta interesei erantzungo zaie.

Hiru hilean behin, ekintzaren ardura duen erakundeak koordinazio-bilera bat egingo du lurralde bakoitzean inplikaturako eragile profesionalekin, eta, horrez gain, koordinazio bateratu bat egingo du urtero, Trebiñuko Konderriarekin edo Enklabearekin batera Lurrikara programaren parte diren sei kuadrilletako bakoitzean ekintzaren garapenean parte hartzen duten eragile profesionalak biltzeko.

Sare horretako zerbitzuekin estali nahi diren eta ekintza hau betetzeko erreferentziatzat erabili daitezkeen ekintza arloak hauek dira: informazioa, orientazioa, laguntza, aisialdi hezitzailea, adierazteko eta parte hartzeko bideak eta sormenerako eta ekoizpenerako laguntzak.

5.3 3. neurria. Gazteen ahalduntze eskola sortzea.

Kasu eta udalerrri zehatzetan ez ezik, Arabako landa gunean bizi diren gazte gehienak nahitaez beren ingurutik urrundu behar izaten dira prestakuntza eta lan prozesuaren uneren batean, adibidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasteko, lanbide heziketako eta/edo goi mailako ikasketak egiteko edo lanean hasteko. Aldaketa hori egin beharra nahitaezkoztat jotzen dutenez, ekintza proposamena gazteekin lan egitea izango da, hala, trebetasunak eta ezagutzak eskuratu ditzaten eta nolabait aldaketa prozesuaren zailtasunak arindu daitezten.

Hauek izango dira ekintza honen helburu nagusiak:

- Gazteei baliabide pertsonalak, sozialak eta/edo hezkuntzakoak ematea, beharrezkoak direnak beren egunerokotasuneko egoerei aurre egiteko.
- Trebetasun sozialak eskuratzea sustatzea.
- Gazteen nortasuna eta autonomia garatzea.

Neurri hori 14 eta 30 urte arteko gazteei zuzenduta egongo da, eta bi adin tartetan bereiziko dira: 14 eta 17 urte artekoak eta 18 eta 30 urte artekoak. Une oro ekintza erakunde batekin egingo da, gazteen beharretan oinarrituta. Lehen adin tarteko nerabeen kasuan aldizka aurrez aurre eta taldean lan egingo da, partaidetza erraztuz eta beharrak, kezka edo egunerokotasuneko gaiak komunean jarriz. Teknologia horren oinarria agenteen arteko koordinazioa izango da.

18 eta 30 urte arteko gazteen kasuan, baliabide digitalak eta birtualak lehenetsiko dira eta beren interesekoak izan daitezkeen baliabideei eta/edo zerbitzuei buruzko informazioa emango zaie.

Ekintza honetan, besteak beste, gai eta/edo arazo hauek landuko dira:

14 eta 17 urte bitarteko gazteak.

- Gizarte trebetasunak (pentsamendu kritikoa, norbere buruarekiko konfiantza, komunikazioa, asertibitatea, norbere emozioen kontrola...).
- Gatazkak kudeatu eta konpontzea.
- Inguru berrietara egokitzea (ikastetxea, hiria...).
- Ikasketa teknikak.

18 eta 30 urte bitarteko gazteak.

- Gizarte trebetasunak (pentsamendu kritikoa, norbere buruarekiko konfiantza, komunikazioa, asertibitatea, norbere emozioen kontrola...).
- Gatazkak kudeatu eta konpontzea.
- Osasuna eta ohitura osasungarriak
- Lan mundurako jauzia

Gaur egun, Araban, 18 eta 30 urte bitarteko gazteek prestakuntza- eta lan-ibilbideei eta enplegarritasunari buruzko informazioa dute Gazteriaren Foru Erakundearen webgunean. Beraz, ekintza hau gauzatzean hautemandako premiak eremu horiekin

lotuta badaude, ahalduntze-eskolaren lana gazteak baliabide horretara bideratzea izango da. Ekintza honen bidez, lehendik dauden informazioa eta baliabideak osatu nahi dira, eta gazteek beren beharrei eta interesei erantzuneko dien informazioa eskuratzeko gune bat sortu. Azken batean, ikasgela birtual baten antzeko zerbitu lortzea, zalantzak, beharrak, informazioa eta baliabideak partekatzeko, eta, horren bidez, gazteen garapena, autonomia eta ahalduntzea sustatzeko beren bizi-proiektuan; behin betiko, ikasgela birtual baten antzeko zerbitu lortzea, zalantzak, beharrak, informazioa eta baliabideak partekatzeko, haien bidez gazteen garapena, autonomia eta ahalduntzea sustatzeko beren bizi-proiektuan. Ahalduntze-eskola bat sortu nahi da, gazteekin lan egiten duten profesionalentzat eta gazteentzat beraientzat ere, haien beharretan, kezketan eta nahietan oinarritutako prestakuntza ematen saiatzeko, arreta gazteengan eta gazteen familiengan jarritz. Eskola honen bidez landuko diren gaietako batzuk emantzipaziorako ekonomia, osasun mentala eta sexualitatea izango dira, besteak beste. Gai horiek proposamenean sartutakoetako batzuk izan daitezke, baita egoera-txostenean bildutako informazioa kontuan hartzeagatik sortzen direnak ere.

5.4 4. neurria. Gazteak emantzipatzeko Arabako estrategia diseinatzea.

Orokorrean, gazteek emantzipazio prozesua bide luzea balitz bezala ikusten dute, hau da, etxebizitza bat eskuratzeko gaitasun ekonomikoa lortu arte edo, horrelakorik ezin bada egin, alokairuan bizi arte irauten duen prozesutzat jotzen dute. Hala eta guztiz ere, emantzipazio prozesua kanpoko askotariko faktoreen menpe dago (enplegua, prestakuntza, higiezinaren merkatua, etxebizitza eta alokairu motak, bankuko izapidetzeak, laguntza ekonomikoak, laguntza horiek jasotzeko baldintzak...) eta gazteek ez dute horien inguruko hainbeste informaziorik eta/edo ez da horietan hainbeste sakontzen. Ekintza honekin, asmoa horrelako faktoreetan sakontzea eta gazteek izan ditzaketen zalantzak eta/edo zailtasunak argitzea izango da. Hala, gazteen informazio zerbitzu tradizionaletatik eta emantzipazio zerbitzu berriak sortuz lan egingo da.

Hauek izango dira ekintza honen helburuak:

- Gazteen interesetatik eta beharretatik abiatuta, beren parte hartzea erraztea.
- Arabako landa inguruan bizi diren gazteei emantzipazioaren inguruko informazioa ematea.
- Komunitate lana eta gazteek kolektibo gisa egiten dutena indartzea.
- Gazteei emantzipazio prozesuan laguntzea eta prozesu horretan protagonista bihurtzea.

Proposamen hori 24-30 urte artekoen zuzenduta egongo da eta kuadrilla bakoitzean eta Trebiñuko Konderrian talde bat (edo gehiago) sortuko dira. Talde horietan, adin horretako gazteak egongo dira eta, lehenik eta behin, emantzipazioarekin lotuta ezezagunak diren beharrak, zalantzak eta bestelakoak jasoko dira eta, ondoren, administrazioen (udalak, kuadrillak, GFE eta Eusko Jaurlaritza, beste batzuen artean) eta gazteekin lan egiten dutenen laguntzarekin, asmoa erakundeak, baliabideak eta/edo informazioa bilatzea izango da eztabaida taldeetan jasotako alderdiei erantzuteko eta gazteei hurbiltzeko (horretarako, aurrez aurreko edo online prestakuntza saioak egingo dira, idatzizko agiriak erabiliko dira edo testigantza errealak jasoko dira...). Taldea hilean behin bilduko da eta aurrez aurre edo online parte hartu ahal izango da, modu horretan, eskualde edo kuadrilla bakoitzeko gazteen prestasunera eta baliabideetara egokitzen saiatzeko.

Urritik aurrera, ekintza martxan jartzea erraztu dezaketen agenteekin harremanetan jarriko gara eta beraiek lagunduko dute ekintza gazteei hurbiltzen eta hedatzen. Aldi berean, harremanetan jarriko gara diagnosian parte hartu zuten gazteen taldeetako eta espazioetako ordezkariekin (Gazte Asanblada, Talde Feminista, Gaztetxea...). Lurrikara programaren sare sozialen bitartez ere ekintza hedatuko da, horrela, Arabako landa inguruko gazte guztiek ikusi ahal izan dezaten.

Eztabaida taldeetan bilatuko diren baliabideak, erakundeak eta informazioa hauek lortzeko izango dira:

- Enplegarritasuna erraztea (enplegu atariak, laneratze enpresak, lan orientaziorako zerbitzuak...).
- Etxebizitza eskuratzeko bideei eta laguntzei buruz informatzea. Informazioa bilatzea eta emantzipaziorako prozesu indibidualetan laguntzea eta horiek zuzentzea. Horretarako, prestakuntzari, lanari, etxebizitza eskuratzeko izapidetzei, kenkariei eta abarri buruzko orientazioa eskainiko da.

Ekintza horren lorpena zuzenean lotuta egongo da bigarren ekintza lortzearekin. Izan ere, asmoa eskualdeetan gazteekin lan egiten dutenen eta gazteen artean baterako lan lerroa ezartzea eta lurraldean gazteen emantzipazioko estrategia komun eta bateraturantz (kuadrilletan banatuta) aurrera egitea izango da.

5.5 5. neurria. Landa gunean bizi diren gazteentzat espazio digitala sortzea.

Gazteek beren egoeraren diagnosian eta inkestetan adierazi dute ez dituztela ezagutzen eskuragarri dituzten zerbitzuak eta/edo horrelakoak falta direla, adibidez, aisialdirako, garraiorako, osasunerako... Proposamen honen bitartez, Arabako landa gunean dauden zerbitzuak jaso eta gazteei hurbilduko zaizkie, hala, zerbitzuen inguruko ezagutza handiagoa izan dezaten eta inolako gabeziarik egonez gero, zerbitzu hori eskuragarri dagoen lekuaren informazioa emateko.

Hauek izango dira jarduketa neurri honen helburuak:

- Arabako landa guneko zerbitzuen sarea biltzea eta gazteentzat ikusgarri eta irisgarri egitea.
- Gazteen ezagutza ezari eta/edo gabezia sentsazioari erantzutea.

Proposamen hori lortzeko, espazio digital horren inguruko informazioa diagnosian analizatu diren Arabako lurraldeko udalerrietan oinarrituta bereiziko da. Hau da, Arabako landa guneko sei kuadrilla eta Trebiñuko Konderria. Espazioak atal orokor batzuk izango ditu (adibidez, enplegua eta ikasketak) gazteen beharretan eta/edo nahietan oinarrituta. Kontuan hartuko da baita ere landa guneko gazteei zuzendutako espazioa izango dela eta, horrenbestez, beste batzuen artean, garraioari eta aisialdi jardueri buruzko informazioa ere izango du. Eduki hori dinamikoa eta edonoiz aldatzeko modukoa izango da eta maiz eguneratuko da, horrela, lurralde bakoitzeko egunerokotasunari erantzuten saiatzeko.

Proposatu den informazio guztia existitzen denez eta erregistratuta dagoenez, asmoa informazio hori leku bakarrean jasotzea da, eta horrela, ekintzaren hartzaille izango diren gazteek eta gainerako biztanleriak kontsultatzeko aukera izatea.

Webgunea sortzeari, diseinatzeari, kudeatzeari eta mantentzeari dagokionez, ekintza hori bere web orrian sartzea erabaki da. Web orri horrek eskaini nahi den informazioaren zati bat jasotzen du, eta atal berri bat irekitzen du Lurrikararako.

Web gunearen edukia definitu ondoren, ahalik eta azkarren ezarriko da eta eskuragarri dauden kanalen bidez zabalduko da (sare sozialak, udalak, udalak, gazte taldeak...).

6. Ebaluazioa

Agiri honetan proposatutako ekintza guztietan gazteek parte hartzea beharrezkoa denez, neurri horien ebaluazioa ere horrela egingo da eta gazteek beren iritzia emango dute.

Lurrikara programaren diagnosian bezala, ekintza plan honen ebaluazioa "INKESTAK" Arabako Foru Aldundiaren plataforma digitalaren bidez egingo da.

Irizpide orokorretan parte hartzaileen adina, generoa eta bizitokia jasoko dira; ondoren, ekintza bakoitza baloratzeko ebaluazio faktore hauek hartuko dira kontuan:

- Ekintzarekiko irisgarritasuna.
- Ekintza identifikatutako arazoarekin lotzea.
- Ekintzaren edukia.
- Ekintzaren bitartez landutakoaren/ikasitakoaren erabilgarritasuna.
- Ekintzarekiko gogobetetze maila.
- Ekintzaren iraupena.
- Ekintzaren balorazio orokorra.

Irizpide horiek 1etik 10era bitartean ebaluatuko dira. 1 izango da gogobetetze mailarik baxuena eta 10 handiena. Ekintza bakoitza ebaluatu eta gero, espazio ireki bat eskainiko da oharrak, iradokizunak edo gomendioak helarazteko.

7. Ekintza planaren betearazpen faseak

Hurrengo taulan ekintza plan honetan 2024ko irailetik abendura bitartean egiteko proposatutako faseak egituratu dira. Ekintza horietako batzuk 2025ean ere egingo dira.

Ekintza	Garapena-Tenporalizazioa
Ekintza plana abian jarri aurreko ekintzak.	<p>Otsailetik apirilera: Prestakuntza eta datuen bilketa analisirako</p> <p>Martxotik ekainera: Lurrikara 2024ren egoera-txostena.</p> <p>Otsaila: Instagram Sare Sozila martxan jartzea</p> <p>Ekaina-uztaila: Ekintza Plana egitea eta idaztea</p>
<p>1. ekintza: Gazteentzako ekipamendu eta zerbitzuen katalogoa sortzea.</p> <p>Zerbitzuak homogeneizatzea</p>	<p>Irailean eta urrian:</p> <p>500 biztanletik gorako herri identifikatuekin harremanetan jartzea. Elkarrizketak eta datu-bilketa.</p> <p>Urria:</p> <p>Datuak biltzea eta katalogoaren lehen zirriborroa egitea, lehenengo fasean.</p> <p>Azaroa:</p> <p>Lurraldeko gazte-eragileekin alderatzea. Argitaratzea.</p>
<p>2. ekintza: Arabako lurraldeko gazteak sustatzeko agente profesionalen sare egonkor bat sortzea</p>	<p>Iraila:</p> <p>Erakundeetako eragile profesionalekin harremanetan jartzea, lan-proposamena aurkeztea.</p> <p>Urria:</p> <p>Sarea sortzeko diseinua eta hedapena eta lehen hartu-emanerako proposamena.</p> <p>Azaroa:</p> <p>Lehen ekintzarako, eragileen bilerarako aurreikusitako data. Barriako aterpetxean, azaroaren 14an.</p>
<p>3. ekintza: Gazteak ahalduntzeko eskola bat sortzea</p>	<p>Iraila:</p> <p>Prestakuntza-proposamen bat diseinatzea adin-taldeen arabera.</p> <p>Urria:</p> <p>Bi prestakuntza antolatzea eta zabaltzea:</p> <p>Adina 14-17. Aukeratu zure prestakuntza-ibilbidea.</p> <p>Adina 18-30. Emantzipaziorako ekonomia</p> <p>Azaroa:</p> <p>Lehenengo ekintza, "emantzipaziorako ekonomia" prestakuntza, aurreikusitako data. Trebiñuko Konderrian/Enklabean, azaroaren 22an.</p>
<p>4. ekintza: Gazteen emantzipazio-estrategia diseinatzea</p>	<p>Pixkanaka, inguruko beste erakunde aliatu eta eragile profesional batzuekin batera landuko da.</p> <p>.</p>

<p>5. ekintza: Herrietan bizi diren gazteentzako gune digital bat sortzea</p>	<p>Iraila: Lehen formatua Aldundiaren Web Unitate zerbitzuarekin diseinatu da.</p> <p>Urria: Espazioa zatituko duten atalak eta argitaratuko diren lehen edukiak prestatzen dira.</p> <p>Azaroa: Orrialdearen ekoizpena eta argitalpena amaitzea aurreikusi zen</p>
--	--